

## MUSIKA

## ALEGIA

- **Txintzarri abesbatza.** Bihar, meza nagusian, 11:30etan.

## BILBO

- **Urte Berriko kontzertua (Strauss Waltzer Orkestra).** Bihar, Euskalduna jauregian.

## ELGOIBAR

- **Parrokiko abesbatza.** Kalejira kalez kale, 19:00etan.

## ELORRIO

- **Petter Conejo.** Bihar, Arriola kultur aretoan, 20:00etan.  
► **Deabruak Teilatuetan, Non Demontre, Batzuk, Hoffnum.** Bihar, gaztetxean, 23:30etan.

## ERMUA

- **Nervion, Boleros 4.** Dantzaldia, San Pelaio plazan, 01:30etatik aurrera.

## HONDARRIBIA

- **Urte Zaharreko kalejira.** Kalez kale koplak abesten. Muara elkarreak antolatuta.

## IRUN

- **More, Moi, Damien, Domy, Robert Sevillano, Juan Carlos DJak.** Tunk! aretoan, 00:00etan.

## LASARTE

- **Txema, Mikel Parrutxo, Blami eta M & M.** Gaur gauean Zulo aretoan. Bihar Txema eta M&M.

## LEKEITIO

- **Sub Gaua party aparta: Alberto DJ eta TXT DJ.** Kabaua aretoan, gau osoan.

## LEZO

- **Sutargi abesbatza.** Kalejira gabonetako abestiak kantatuz, 18:00etatik aurrera.

## MIARRITZE

- **La vie parisienne.** Opera. Gare du Midin, 20:30etan.

## ORDIZIA

- **Beti Argi Banda eta Laguntasuna Errondaila.** Ohiko Kattalin doinua joz, 19:30etan.

## SESTAO

- **El Despiste fanfarria.** Kalejira txistulari eta gaitariekin batera, kalez kale, 19:00etan.

## ANTZERKIA

## BERGARA

- **Mari Sorgin.** Taupada taldearen eskutik, Zabalotegi aretoan, 16:30etan eta 18:00etan.

## BILBO

- **La venganza de Don Mendo.** Bihar, Tricycle taldearen eskutik, Ayala antzokian, 20:00etan eta 22:30etan.

## BERTSOLARITZA

Mañukorta, Ziarda eta Meabebasterretxea • Elgoibarko gabon zahar ferian

## Gregorio Larrañaga 'Mañukorta'

• BERTSOLARIA •

«Bakea eta askatasuna eskatzen dizkiot urte berriari»

GABON ZAHARRETA KO FERIA egingo dute gaur Elgoibarren, ohitura denez. Goizeko 08:30etatik aurrera barazki eta fruitu erakusketa izango da Foruen plazan, baserriko produktak Leku Eder parkean, hegaztiak Nafarroa plazan eta ganadu feria eta baserriako tresneria Aita Agirreren plazan. 11:00etan gazta lehiaketa hasiko da, udaletxeko areto nagusian. Eta eguerdian eta bazkarestean Mañukorta, Ziarda eta Meabebasterretxea bertsotan ariko dira.

■ **Askotan izan al zara bertsotan gabon zaharreko azokan?**

Bai, han izan naiz sei bat urtetan. Oso giro ona izaten da, batez ere baserriko giroa ezagutzen dugunontzat benetan jatorra izaten da. Oso giro ona.

■ **Horrelako azoketan bertsotan pozik ibiltzen al zara?**

Dudarik gabe, horrelakotan oso gustura ibiltzen naiz. Gainera, hango janak eta produktuak ere ondo



MARISOL RAMIREZ

Mañukortak dioenez umore onarekin ekin behar zaio urte berriari.

ezagutzen ditugu, eta bertsotan egokien bertan eginen dugu. Gero ere aukera handia izaten da han zer edo zer jateko, eta niri taloa eta urdaia asko gustatzen zaizkit.

■ **Urtezaharreko koplak kantatzen al dituzte zure herrian?**

Bai, ibiltzen dira gazte talde batzuk. Baina ni Santa Agedatik kanpo ez naiz kopletan ibiltzen. Bertsotan aritzea nahiago dut.

■ **Urte berriari zer eskatuko zenioke?**

Ona izan dadila. Bake pixka bat, eta askatasuna ahal baldin bada. Falta di-

ren gauza horiek ea lortzen diren; zaila izango da, baina... Aurrera ere 2000. urtean berdin-berdin jarraituko dugu. Lan batzuk bukatu eta bestetan segi.

■ **Urtea, bertso aldetik, zer moduzkoa izan da?**

Ni beti bezala. Aurten ibili naizen herri gehienetan bertso-bazkariak edo bertso-afariak izan dira, eta horiek ditut nik gustukoen. Etxean, ordea, ez dut nik bertso askorik botatzen; ez dago bertsozale handirik nire etxean.

*Urtzi Urkizu*  
DONOSTIA

## IRUÑEA

- **Sobre Hugo...** Teatro Negro de Zilina taldearen eskutik, Gaia-erre Antzokian.

## DANTZA

## ELGOIBAR

- **Plazara Dantzara.** Dantza ikuskizuna Foruen plazan, 17:00etan.

## ONDARROA

- **Kresala dantza taldea.** Kalez kale, 18:00etan.

## BERTSOLARITZA

## ERRETERIA

- **Amaia Agirre eta Bixente Gorostidi.** Eskeko saioa.

## HERNANI

- **Urte Zaharreko Erronda.** Motiboa: Bertso Lata.  
► **Jon Sarasua, Imanol Lazkano, Jokin Soroazabal eta Sebastian Lizaso.** Bihar, Sandiusterri aretoan, 22:30etan.

## ORIDIZIA

- **Andoni Egaña, Julien Zulaika, Iñigo Manzisidor 'Mantxi', Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu, Txomin Garmendia eta Aitor Usandizaga.** Bihar, Herri Antzokian, 18:00etan. Gipuzkoako txapelketako errebantxa.

## BESTELAKOAK

## ARETXABALETA

- **Alberto magoa.** Udaletxe zaharrean, 16:00etan.

## BERMEO

- **Takolo, Pirritx eta Porrotx.** Ar-tza pilotalekuan, 11:30etan.

## BILBO

- **Kotiloi berezia.** Gaur gauean Mystik kafe antzokian. Sarrera doan.  
► **Artisautza Azoka.** Zabalburu plazan, urtarilaren 6a arte.

## ELORRIO

- **Txantxibiri Irratiak antolatutako jaia.** Arriola kultur aretoko ateneoan, 01:00etatik aurrera.

## ERMUA

- **Barre egin.** Txirri, Mirri eta Txiribitonen eskutik, Ermua zinema aretoan, 16:00etan.

## OIARTZUN

- **Kotiloia.** Pagoa garagardotegian, sarrera doan.

## ONDARROA

- **Gabonzar Party.** Itsas Aurre plazako karpan, 02:30etatik aurrera. Soma Raza taldea, DJ saioak...

## SEGURA

- **Talo festa.** Herriko plazan, 18:00etan.

## USURBIL

- **Upeletan Erronka.** Laxok taldearen ikuskizuna, kiroldegian, 17:00etan.

## LEHIAKETAK

## ARRASATE

- **Literatur lehiaketak.** Ipuina, poesia eta bertso paperak. Lanak otsailaren 11 baino lehen bidali behar dira honako helbidera: AED Elkartea / XIII. Arrasate Lehiaketak / Pablo Uranga kalea, 4 behe / 20.500 / Arrasate.

## ERRETERIA

- **Erretereria Hiria V. Bideo Lehiaketa.** 16 eta 35 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Jatorrizko lanak VHS edo SVHS formatoan aurkeztuko dira eta gehienez 30 minutuko iraupena izango dute. Erretereriako Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean, urtarilaren 14an baino lehen aurkeztu behar dira lanak.  
► **Erretereria Hiria XI. Komiki Lehiaketa.** 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Marrazkiak zuribeltzean egingo dira, 18 x 25 zm-ko formato bertikalean. Lanak otsailaren 15a baino lehen honako helbidera bidali behar dira: Erretereria Hiria XI. Komiki Lehiaketa / Erretereriako Udala / Sarrera Erregistro Orokorra / Herriko Enparantza z/g / 20.100 Erretereria.

## HERNANI

- **2000ko Inauteriak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa.** Jatorrizko lanek 38 x 44 zm.-tako neurria behar dute. 'Hernaniko Inauteriak 2.000' lema eramatea beharrezkoa da. Lanak urtarilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira Biteri kultur etxean.

## ONDARROA

- **Augustin Zubikarai Literatur Lehiaketa.** Bi sariketa izango dira: Euskarazko Narrazioak eta Eskolarteko Ipuin Sariketa. Hiru ale bidali behar dira urtarilaren 31a baino lehen, honako helbidera: Udal Euskara Zerbitzua / 48.700 Ondarroa. Argibideak 94-6833668 telefonoan.

## ZARAUZ

- **XVIII. Xabier Lizardi saria.** Haur eta gaztetxoentzako literatura zuzpertzeko lehiaketa. Lanak urtarilaren 15a baino lehen bidali behar dira, Zarauzko Udaletxeko Euskara Zerbitzura.